

## **SARRERA EDO DESKRIBAPEN OROKORRA**

*Startinnova proiektu honetan gure enpresa Xunzione izeneko hagun fabrikatzaile bat izango da. Gure enpresak automobilentzako hagun pertsonalizatuak fabrikatuko ditu. Baina nola fabrikatu bakoitzaren gustoko hagun pertsonalizatuak?... Horretarako ipini dugu martxan gure web orria, bertan enpresaren inguruko xehetasun guztien berri ematen da hainbat formatutan, lehenik eta behin, gurekin kontaktuan jartzeko hainbat datu, ondoren enpresaren helbidea, baita gure katalogoa eta hagunak aukeratzeko hainbat irizpide ere.*

*Gurekin interesatuta dagoen edonor sar daiteke web orri horretan, bere datuak eta kontu korrontea jartzea nahikoa izango du, horrela berak nahi bezalako hagun mota diseinatu ahal izango du. Aukeraketa handia dugu, adibidez: Zertarako, erradioa, zabaltasuna, materiala, kolorea, eztarria, torloju kopuruak, izenen bat jarri hagunearan, hagunaren forma (limitatuta noski), etab. Geroz eta gauza gehiago edo konplexuagoak jarri, geroz eta garestiagoa izango da haguna, horretarako jarri dugu hain zuzen ere gure kostu markagailua web.en, bertan, xehetasunak eta elementuak sartu ahala, berak markatuko du prezioa. Gure enpresaren bezero fidelenek harpidetza egiteko aukera izango dute, web orri berdinean noski. Behin harpidetzen bazarete, gure katalogoa berritzen denean mezu bat bidaliko zaie.*

*Behin gure enpresan enkargua egiten baduzu, hainbat modu edukiko dituzu kontaktuan jartzeko, hasi modu digitaletatik eta presentzialetaraino, horrez gain, hainbat arazoirengatik ezin baduzu hagunaren bila joan banaketa enpresa baten bidez bidaliko dizugu. Askotan badakigu konplexua izan daitekela dena internet bidez edozer gauza erostea, batez ere adin batetik aurrera, horretarako ematen dugu baliabide hau.*

*Gure enpresaren helburua ez da soilik produktu konkretu bat, kasu honetan haguna, produzitzea, baizik eta produktuaren kalitatea bermatzeaz gain, bezeroari eta langileari duintasunezko zerbitzua ematea dugu xede, zerbitzu pertsonal eta aholku bereziekin. Azken finean, gure helburua kaloitatea eta kantitatea biak modu ekitatibo batean esakintzea da.*

*Beraz, ondorengo proiektu honetan biltzen da, guk gure hiruilabeteko Industria Teknologiko gaian egindako lana, enpresa berritzaile eta aintzindari bat sortzea izan da gure asmoa, gure ezagutzak eta esforzuak baliatuz. Hemen duzue gure enpresaren planifikazioa.*